

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lanbide heziketako bost espezialitatetan elkarlana adostu du Nafarroako hezkuntza ordezkariak Txinako Gansu probintziarekin

Automatizazioa, industria 4.0, energia berriztagarriak, nekazaritza elikadura eta turismoa ibilbideetan lan egingo dute elkarrekin

Osteguna, 2018.eko irailak 27

Nafarroako gobernuak Txinako Gansu probintziara egiten ari den bidaia instituzionalean, Hezkuntza departamentuaren ordezkariak Gansuko gobernadoreordearekin elkartu da gaur eta lanbide heziketako bost espezialitatetan elkarlanean aritzeko akordioa adostu dute, bi erakundeentzako interesekoetan. Zehazki automatizazioa, industria 4.0, energia berriztagarriak, nekazaritza elikadura eta turismoa arloetan, Nafarroan eskaintza espezializatu eguneratua eta kalitatezkoa dituen arloak.



Esther Monterrubio Ariznabarreta eta Roberto Perez Elortza LHko lantegi bat bisitatzen.

Hezkuntza kontseilari orokor Roberto Perezek, eta Lanbide Heziketako zerbitzu-zuzendari Esther Monterrubioek hainbat lan-bilera izan dituzten Lanbide heziketaren inguruan Txinan, baita Nafarroan dagoen hezkuntza ibilbidearen inguruan ere. Nafarroako ordezkariak aukera izan dute bigarren hezkuntza eta derrigorrezko hezkuntza osteko ikasleen mugikortasuna sustatzeko nahiz ikastetxeen arteko anaitzeak egiteko Gansuko hezkuntza agintariek duten interesa.

Jiayuguan hiriko hainbat ikastetxetara egindako bisiten ondotik, Roberto Perezek bi hezkuntza sistemen antzekotasunak ditu, “garapen ekonomikoan eta gizarte nahiz lurralde kohesioan giltzarri dira biak ala biak”.

Zuzendari orokorra elkarlan berrien inguruan aritu da, esaterako Gansuko LHko burdin eta altzairuaren zentroarekin “interesgune antzekoak ditugu hango zentroek eta ikastetxe nafarrek, hau da, gure gizarteak, irakasleek eta ikasleek beste kultura, hizkuntza eta konpetentzia profesionalak zein metodologikoak ikas ditzaten. Hezkuntza proiektu berritzaileak elkarbanatzeko orduan gero eta gertuago daude Gansu eta Nafarroa.”

Hezkuntzako arduradunek hainbat zentroetako tailerretan egin dute bisita, tartean lantegi mekanikoetan, ikus-entzunezkoen platoetan edota laborategietan. Ikastetxeetako zuzendariekin izandako topaketetan Esther Monterrubio Lanbide Heziketako zerbitzu burua, Foru Komunitatean nekazaritza industria modernoak duen pisuaz aritu zaie, eta betiere, LH dela etengabeko egokitzapenean ari dena. Enpresek behar dituzten profilak sortuz, hezkuntza lan merkatura gerturatuz, ibilbide profesional handiko pertsonak hezten direla gaineratu du. Monterrubioak azpimarratu du gainera Lanbide Heziketa apustu estrategikoa da Nafarroako Gobernuarentzat eta horregatik urrutira begiratu eta hezkuntzari dagozkion informazio trukaketak egiteko indartzen ari direla Gansurekiko harremana “ikusidugunez enpresek eskatutako kualifikaziora egokitzen ari dira hemen, baita batxilergoko mailetan ere. Bisitatu ditugun zentroak antolakuntza ona zuten, egiteko modu desberdinak bai baina modernizazio etengabera bideratuta”


Administrazio bietako arduradunek baieztatu dute ikasleen-trukatze proiektuetarako dagoen interesa, are gehiago, Roberto Perez Elortzak frogatu ahal izan duenez *“Lanbide Heziketak herrialdeen garapenean duen garrantzian bat gatoz”*

Gansuko agintarien aurrean LHko arduradun nafarrak azaldu du familien arabera sailkatua dagoela hemengo ikasketa sistema eta, era berean, bokazio eta formazio zikloak eta espezializazio kurtsoak daudela. Guztietan, hori bai, atzerrira joateko programak daude, goi mailako ikasketara pasatzeko moduak eta ikasi bitartean enpresetan aldi-bereko praktikak egiteko aukera dagoela adierazi du. Amaitzeko, LHa sustapen soziala zein ekonomikorako lanabes ezin hobe dela adierazi du, eta horregatik, tokian-tokiko erantzun egokituak ematen ditu Hezkuntzak.

Txinara joandako nafar-ordezkaritzak argi utzi du hezkuntzak duen eskaintza etengabeko berrikuntzan dagoela, teknologia, didaktika eta metodologiari dagokienean. Hezkuntza eta lan merkatua batera aritzeko ezinbesteko ardatzak baitira bien arteko garapen eta egokitzapenean.

Gansun adierazi dute, LH sistemaren barruan dagoen heinean, Hezkuntza departamentuak dituen gainontzeko programak ezarri eta koordinatu egiten dela gainontzeko helburuen bide beretik joateko. Zehazki, metodologia berrien eta aniztasunari arreta planetan, jakina, LH ere zeharo murgilduta dago.

Galería de fotos



Esther Monterrubio y Roberto Pérez visitan un taller de FP.



Ordezkaritza biak lanbide heziketa ikastetxeetan bisita egin ondoren.